

1936 - 2036

Tene'k

Eun urte...
Nere bizitzaldi onentzat, ezin bat aña.
Egutegi onen irautearentzat, egun bat beste.

Nork esan dit, Egutegi onen iyeki bat edo bestek, edo... askok, idaztegitiren bateko apalan, edo ganbara kutxetan egun bat bestean, eunki oso bateko loa egingo ez dutenik?

Iñork ez.

Gutziz errex gerta litekena; ziur-ziur gertatuko dana.

Orra ba zerk, 1936'ko idazle au, 2036'ko irakurlearen begietan jartzen naberen Onek, eta euzkerak sendo iraungo duan itxaropenak,

Zuretzat ba, 2036'ko irakurle orrentzat nere au.

Norbait izandakoa naiz zuretzat; norbait izango zerana zera neretzat.

Gerora etorriko dan aldikoa zu neretzat; aspaldi igaro zan aldikoa ni zuretzat.

Alaero Egutegi oni eskerrak, aldi bateko edozein idazle-irakurle bestean gera zu ta ni gogoaz aurrez-aurre elkar mintzatzen. Eta aituko gera.

Ez da ba esango dizudan au, ez «lenago» ez «oraingo»; ez nere «uste», ez beste. ren Jaungoikoa ta Aberria esateko ditudanak Jaungoikoa betiko da Aberria iudian dan arteko Biak zuretzat eta neretzat berdin «lengo» ta «oraingo».

Jaungoiko ta Aberri'tzaz oldozten, ames dagit... 2036'ko zure Euzkadi'z ames ere.

On, eder, azke iduri det. Jaungoiko zale ta euzkeldun Au gabe bestea ezin ba.

Jaungoiko gabe ezin errien zorionik; ontasun eta edertasunik. Beren zeingiri gabe, ezta izaterik edo azkatasunik ere. Gurearen zeingirik berezlena euzkera; euzkera gabe Euzkadirik ez.

Baña... esan det: ames dagit. 2036'ko zure Euzkadi, on, eder, azke, da.

Euzkotar guziak euzkeldun, euzkotar guziak Jaungoikoaren Goimaitasuna Euzkadin pake bide; zintzotasuna bere altxor; euzkera ezaungarri Maitasun goikoagan, gogo ona bekoagan.

Ontasun guzi au gure aberriak beti bere izan du; izan dezan lan dagit; izango duala ames dagit.

Entzun, 2036'ko nere irakurle orrek: James dagidana egiztu da?...

Irakurten banazu, bai: euzkera bizi dala-ko da-ta. Ta euzkera bizi ba'da, baita euzkotarren sinistea ere. Zure Euzkadi, on, eder, azke da...

Zuretzat, 2036'ko irakurle orrentzat nere au.

Zuk nere au irakurri daizun ez da asko «Argia»ren Egutegi iyeki onen irautea. Bearreko euzkerak irautea. Euzkeraz, aberriak bizirik iraungo du; baita bere zintzoteak ere. Orrela zu ta ni elez ta gogoz aituko gera.

Au irizteko gaur lan dagit... Zuretzat idazten det...

TENE